

Ordizian, **2016ko azaroaren 3a** UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

**BERTARATUTAKOAK:**

**LEHENDAKARIA:**

José Miguel Santamaría Ezeiza jn.

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez	EAJ/PNV
Alvaredo	
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero	Ordiziako E.H. Bildu
Zubelzu	
Miren Alazne Sukia	Ordizia Orain
Galparsoro	
M. Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

**IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

**IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta and.

**KONTUHARTZAILEA:**

Mikel Zubizarreta Elicegui jn.

**AZTERTUTAKO GAIK**

**EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIK:**

1.- 2016ko urriaren 6an egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

- 2.- Iraileko alkatetza dekretuen kontu ematea.
- 4.- EUSKAL FONDOAK egindako Erakunde Adierazpena Mendebaldeko Saharari buruz.
- 5.- LANDARLANEK sinatutako mozioa Aralarren kontserbazioaren inguruan.
- 6.- GEHITUren eskaera, GIBaren inguruan antolatu duten kanpainarekin Ordiziako Udalak bat egin dezan eta Parisko adierazpena onratzeko.
- 7.- PSE-PSOEn mozioa, Trans Despatologizazioaren aldeko Ekimenaren Nazioarteko Egunari buruzkoa.
- 8.- PSE-PSOEn mozioa, Euskadiko Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa egiteko derrigortasunaz.
- 9.- Goieki, S.A.k EIOZen hobaria izateko proposamena
- 10.- Eskaerak eta galderak.
  - .- Elkarbizitzari buruzko jarunaldiaren berri ematea.
  - .- Desgaitasuna duten langileentzako Udalak gortdetzen duen lanponstuko %7az galdera.

**PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK: 2017 ekitaldirako kreditu konpromisoa**

- 3.- 2017 ekitaldirako kreditu konpromisorako proposamena

**ORDUTEGIA:**

**HASIERA: 19:00 etan**

**AMAIERA: 21:25ean**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

### **1.- 2016ko urriaren 6ako ohiko Osoko Batzarrako akta onartzea.**

#### Proposamena

### **2016ko urriaren 6ako ohiko Osoko Batzarrako akta onartzea**

#### Eztabaida

#### Eguren jauna

Adierazi du 6. puntuan "Ordenantza Fiskalen Onarpena" puntuan, bozketan jasotzen dela proposamenaren aldeko 12 boto direla eta , aldiz, Alkate jaunaren interbentzioan jasotzen da orokorrean ordenantzen alde bozkatuko duela baina I. zenbakidun Ordenantzak, OHZn, %50aren errekarguaren kontra bozkatuko duela eta 6. zenbakidun Ordenantzak, hondakinen bilketa tasan, abstenitu egingo direla.

Adierazi du ez dela bat etortzen Alkateak ordenantza fiskalen onarpena proposatzea eta kontra bozkatzea, ez badu bozkatuko den bigarren proposamen bat proposatzen. Ordenantzak osotasunean bozkatuko zirela erabaki ondoren, ez du zentzurik ordenantza zehatz batzuen aurka bozkatzea edo abstenitzea. Beraz, zuzentzeko eskatu du.

#### Alkate jauna

Esan du bozketa errazteko eta kontuan izanda ordenantzak onartu egingo zirela, osotasunean ordenantzen alde bozkatu zuela baina azpimarratu zuen aktan jasota geratzea nahi zuela bere taldea OHZren errekarguaren aurka zegoela eta hondakinen bilketa tasan abstenitu egingo zirela.

#### Idazkari andrea

Esan du Eguren jaunak arrazoia duela bere planteamenduan eta kontra bozkatzen duela edo abstenitu egiten dela jaso beharrean, aktak jaso behar duela ordenantzaren alde bozkatzen dutela osotasunean baina beraien desadostasuna adierazten dutela OHZren %50eko errekarguarekin eta hondakinen tasarekin.

### ***Idazkariak zuzenketa egin du.***

#### Bozketa

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du zuzenketa egin ondoren.**



## **2.- Irailean zehar egindako Alkatetzaren Dekretuen berri ematea.**

### Sukia andrea

B 16/00870 zenbakidun dekretuaz galdetu du, 4. orrialdean dago "gai zehatzak" izeneko zerrendan, eta horien barruan daude puntuak kentzen dituzten isunak.

Gauza bera zerrendako 11. orrialdeko B16/00970 dekretua eta ondorengoak.

### Alkate jauna

Erantzun dio esanez ez duela dekretu hauen inguruko informaziorik. Informazioa jaso ondoren horren berri emango du.

***Osoko bilkura jakinaren gainean geratu da.***



Jarraian, Alkate jaunak jakinarazi du presazko izaera duen puntu bat sartu behar dela:

## **3.- 2017 ekitaldirako kreditu konpromisorako proposamena**

Onartzea Kiroldegiaren Eranskineko obrak burutzeko obra-zuzendaritza kontratatzeko.

Kontuan izanda Osoko bilkurarako Gaiien Batzordeak ez duela eguneko gai-ordenean sartzeko irizpenik eman, eguneko gai-ordenan sartzeko osoko bilkurak berretsi egin behar du.

Presazko izaerarekin puntua sartzearen aldeko botoak:

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak:0

### Alkate jauna

Azaldu du 2016ko azaroaren 2ko Majori Kiroldegia SLko Administrazio Batzordean Kiroldegiko Eranskinaren obra proiektua idazteko lizitaziorako pleguak onartzeko akordioa adostu zela, osoko bilkuran 2017 ekitaldirako kreditu konpromiso bat onartzeko baldintzarekin.

## Kontu-hartzaile jauna

Azaldu du datorren urterako kreditua konprometitu behar dela eta akordio proiektua edo proposamena egin du ondorengo zehaztapenekin:

### Proposamena

2016ko azaroaren 2an Majori Kiroldegia SLko Administrazio Batzordeak Majori Kiroldegira erantsitako pabilioia egokitzeko proiektua idazteko baldintza ekonomiko, administratibo eta teknikoen plegua onartu zuen eta bertan obra zuzendaritza sartzen da.

Akordio hau gauzatzeko aurrekontu-gordailua izan behar da, eta sozietateak ez du horretarako gordailurik.

Udalaren 2016ko Aurrekontuan gordailua dago 1 643.01.342.002016 partidan, 42.350 eurokoa, BEZ barne, 2016 urtean exekutatzeari aurreikusten dena.

Obra hauek exekutatzeko aukeraren aurrean obra zuzendaritzarako 3 urteko epealdia aurreikusten da, eta kopurua osotara 48.400 eurokoa da, BEZ barne; hori dela eta, kopuru horretarako 2017rako konpromiso kreditu bat sortu behar da.

Hori guztia ikusita, ondorengo proposatzen da

### AKORDIO PROPOSAMENA

**2017 ekitaldirako kreditu konpromiso bat hartzea, 48.400 eurokoa gehi BEZ barne, Majori Kiroldegiaren eranskineko obren zuzendaritzarako.**

### Eztabaida

#### Ezenarro jna.

Esan du bere taldeak ez duela puntuaren onarpenaren aurka egingo baina azaldu du berak Majori Kiroldegia SLko udal arkitektoaren eta gerentearekin egin zen bilera batean hartu zuela parte eta bertan ekarpen eta aldaketa batzuk sartzeko eskaera egin zuela eta ez direla jaso deialdiarekin batera Batzordera bidalitako baldintza pleguetan.

Hori dela eta, atzoko Batzordeak pleguak onartu zituen ekarpen eta aldaketa hauek sartzeko baldintzarekin.

“Guztia” kontuan izanda obrak burutzeko bere taldeari beharrezkoa iruditzen zaion ideia-lehiaketari buruz ez zen ezer esan atzoko Batzordean.

Bere taldea abstenitu egingo da baina aurreratu dute hemendik aurrera obren exekuzioarekin lotutako guztiaren aurka egingo dutela alde zuzenetik ez bada ideia lehiaketarik egiten.

Alkate jna.

Erantzun dio esanez berariaz esan ez bazen ere, ideien lehiaketa bat egiteko deialdia egingo dela. Beraz pausoak ematen ari dira.

Soto and.

Esan du, berak ulertu zuenaren arabera, Ezenarro jaunak aipatutako aldaketa eta ekarpenak sartu ondoren, berriro aztertuko zen Batzordean onartzeko.

Idazkaria and.

Azaldu du Batzordeak pleguak onartu zituela aldaketa hauek sartzeko baldintzarekin, eta onartuta geratu zirela Batzordean berriro aztertzeko beharrik gabe.

#### Bozketa

Aldeko botoak: 6 ( EAJ/PNV 5, PSE-EE(PSOE) 1)

Kontrako botoak: 2 (Ordizia Orain 2)

Abstentzioak: 5 (Ordiziako E.H-Bildu)

**Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



Alkate jn

**Gai-zerrendan 9. puntuan azaltzen den puntua aurreratu du** osoko bilkura luzatu daitekeela aurreikusitako delako. Gai-zerrendaren gainerako puntuak ez dute kontu-hartzailearen informaziorik eskatzen eta puntu hau aztertu ostean joan egin daiteke.

**9.- Goieki SAK EIOZen hobaria izateko proposamena.**

#### Proposamena

Eraikin, Obra eta Instalazioen Zerga Arautzen duen Ordenantzaren berri eman da. Horrek aurreikusten du interes berezikoak diren edo udal erabilerarako interesgarritzat jotzen diren eraikin, instalazio eta obrei zergaren kuotan % 95eko hobaria ematea, beti ere izendapen hori arrazoitzeko behar adina ezaugarri sozial, kultural, historiko-artistiko eta enplegu-sustapenekoak baleude.

Era berean, oinarri teknologikoa duten enpresen inkubategiaren eraikina egiteko obretarako A20460747 zenbakidun IFZ duen GOIEKI Eskualdeko Garapen Agentziak aipatutako zergaren hoberia izateko aurkeztutako eskariaren berri ematen da.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zergaren uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauaren 5.1.a) artikulua araberak, Tokiko Zerga Sistema berritzeko martxoaren 19ko 4/2003 Foru Arauak aldatuta, Osoko Bilkurari dagokio hoberia aplikatzeko obren interes edo erabilera publikoa izendatzea.

2016ko urriaren 26ko data daraman Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak, eskatutako hobariaren aldeko irizpena eman du, obrak interes orokorrekoak direla iritzita enplegua sustatu eta enpresa berrien sustapenean laguntzen dutelako; hori dela eta, 95% eko hoberia proposatu du.

#### AKORDIO PROIEKTUA

**Oinarri teknologikoko enpresen Inkubategia eraikitzeko GOIEKI SAK egingo dituen obren interes berezia eta udal-erabilpena aitortzea eta, ondorioz, aipatu obrei Eraikin, Obra eta Instalazioen gaineko Zergaren % 95ko hoberia egin dakien onartzea.**

#### Eztabaida

#### Alkate jn

GOIEKI SAREN eraikuntza obren hobari proposamenaren berri eman du, oinarri teknologikoko enpresen inkubategirako eraikina egiteko. Proposatzen den hoberia ehuneko 95ekoa da.

#### Bozketa

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak:0

**Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



#### **5.- EUSKAL FONDOAK egindako Erakunde Adierazpena Mendebaldeko Saharari buruz.**

#### Proposamena

Iragan igandean, urriak 9, Marokoko gobernuak okupatuta duen Mendebaldeko Saharako eremuan sartzeko aukera ukatu zion giza eskubideen behatzaileen euskal ordezkari bati. Euskal ordezkari hori kide hauek osatzen dute: Carlos Martín

Beristain eta Gloria Guzmán jaun-andreek (Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa-Nazioarteko Lankidetzak eta Garapenari buruzko Ikasketak Institutuko kideak), eta Arantza Chacónek, Giza Eskubideen Behaketarako Nazioarteko Elkartearen kideak. Aaiunera egindako bisita ASVDH saharar biktimen elkartearen gonbidapenez egin zen; elkarteak duela hilabete batzuetatik hona marokoar agintarien baimena du funtzionatzeko. ASVDH elkarteak biktimentzako lehen jardunaldiak antolatzen ari da egunotan, baita bi txosten hauen aurkezpena ere: “Memoriaren Oasia”, giza eskubideen urraketa buruzkoa, eta “Meheris: itxaropen posiblea”, Hegoak eta Aranzadi Zientzia Elkartearen talde batek, Francisco Etxeberria jaunarekin batera, aurkitutako bi hobi komunei buruzkoa. Hobietan 8 desagerrarazi zeuden.

Ikerketa-lana Saharako biktima eta erakundeekin partekatzearen ekimen hau, hain zuzen, giza eskubideen alorreko edozein ikerketa-prozesuren parte bat da. Horrez gain, Euskal Fondoak lagundutako ikerketa-proiektu baten parte ere bada (Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Donostiako, Tolosako, Zarauzko, Hernaniko eta Urnietako Udalen finantzaketarekin). Hori guztia kontuan hartuta, honako hau adierazten dugu:

**1. Aurka egiten diogu giza eskubideen behatzaile eta ikertzaile ezagunak osatutako talde horri sarbidea ukatzeari. Sarbidea ukatzeak agerian uzten du ez dagoela biktimen eskubideak aitortzeko interesik eta zein zaila den haien lana bultzatu dezaketen pertsona eta erakundeekin harremanetan egotea. Ukapen hori, zuzenbidearen aurkakoa izateaz gainera, Saharako egoera hobetzeko beste oztopo bat da, kontuan hartuta zein den helburua: hain zuzen, giza eskubideen errespetua izan dadila gatazkaren irtenbide politikorako oinarria. Egin beharreko jardueran, besteak beste, kontu hauek aztertu nahi ziren: desagerrarazitako biktimen egoera eta pertsona guztiak desagerrarazpenen aurka babesteko Nazioarteko Hitzarmenaren 24. artikuluko 7. paragrafoa. Marokok sinatutako hitzarmen horretan honako hau adierazten da: “bermatu egingo zaie eskubidea dutela desagerrarazpenen inguruabarrak eta desagerrarazitakoen egoera ezartzen laguntzeko eta desagerrarazitako biktimei laguntzeko erakunde eta elkarteak askatasunez eratzeko eta horietan libreki parte hartzeko”.**

**2. Berrito ere adierazten dugu saharar herriarekiko elkartasuna, nazioarteko zuzenbideak eta Nazio Batuen hainbat eta hainbat ebazpenek babestutako aldarrikapenei dagokienez. Zehazki, egunero bitarteko baketsuen bidez egoera horren aurka borrokatzen diren saharar emakume aktibistekiko hurbiltasuna adierazi nahi dugu. Hain justu, haien egoera aztertu nahi zuen aipatutako behatzaile taldeak.**

**3. Eskerrak eman nahi dizkiegu behatzaile taldeari eta taldeak Mendebaldeko Saharan giza eskubideen alde egiten duen lan eskuzabala babesten duten gizarte-erakundeei, zeregin hori justiziaren eta giza duintasunarekiko errespetuaren adierazpen gailena den aldetik.**

**4. Horrenbestez, Marokoko Gobernuaren aurrean egin beharreko ekintza guztiei**



heltzeko eskatzen diegu Espainiako Gobernuari eta nazioarteko erakundeei, giza eskubideen eta lankidetzaren alorrean lan egiten duten erakunde nahiz elkarteek askatasunez bisitatu ahal izateko Mendebaldeko Sahara. Hori edozein herrialderen gutxieneko baldintza da; inor ezin da egon zuzenbidearen gainetik.

5. Berresten dugu Mendebaldeko Saharako giza eskubideen urraketa larriak ikertzeko proiektuarekin dugun konpromisoa. Hegoak -Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari buruzko Ikasketarako Institutuak- eta Aranzadi Zientzia Elkarteak garatua, proiektuari esker aurrerabide garrantzitsua egin da egia ezagutzeari, justizia sustatzeari eta biktimei ordaina emateari dagokienez.

Adierazpen honekiko atxikimendua helbide honetara bidaltzea gomendatzen diegu euskal erakunde publikoei:

Embajada del Reino de Marruecos .-Norentzat: Mohammed Fadel  
Benyaich.-Embajador  
Helbidea: Calle de Serrano, 179, 28002 Madrid

Eztabaida

Alkate jn

Llabor azaldu du adierazpena zertan datzan. Adierazpenaren xedea da giza eskubideen ikertzaile eta behatzaileen taldeari sarbidea ukatu izana salatzea, saharar herriarekiko elkartasuna berrestea beraien bidezko aldarrikapenetan eta Espainiako gobernuari eta nazioarteko erakundeei eskatzea Marokoko gobernuaren aurrean beharrezkoak diren ekimen edo neurriak hartzeko.

Bozketa

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak:0

**Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



**5.- LANDARLANek sinatutako proposamena ARALARren kontserbazioaren inguruan.**

Proposamena

SARRERA

Orain 20 bat urte aztoratu gintuen eztabaida kalean jarri digute berriro: Aralarko gailurretan pista berri bat irekitzera "omen" doaz, Enirio-Aralarko Mankomunitateak, Foru Aldundiaren eskutik, horretarako proiektua onartu omen du, aidanez 2002an egin zen ekintza egitamuan oinarrituz, baina hura ere motza iruditu eta luzeago behar omen dute gainera.

Eta 'omen' diogu, Ordiziako Udalean ez delako horrelako erabakirik hartu, ez Osoko Bilkuran ez dagokion Sailean ere. Eta Ordiziako Udalak erantzukizun berezia du Enirio-Aralarko Mankomunitatean, bera baita Mankomunitateko 15 herrien artean Lehendakaritza iraunkorra duena.

Ez dezagun ahaztu Enirio-Aralarko Mankomunitateak Aralarren duen sail izugarria herritar guztion jabetzakoa dela eta bere administrazioak, gure ustez, denon onura bilatzen saiatu beharko luke, ez gutxi batzuen mesedetan bakarrik jardun eta beste gainontzekoak baztertu, oraingo honetan egin duen bezala.

Ukaezina da pista izatea onuragarria dela erabiltzaileentzat, baina ezin dira ezkutatu pisten eraikuntzak inguru naturalean eragiten dituen kalte eta inpaktuak. Batez ere Aralar bezalako mendietan, natura eta paisaia balio apartak izatekin batera, arras hauskorak gertatzen baitira, honelako obrek larriki kaltetzen dituztelarik.

Testuinguru honetan, onartezina egiten zaigu Foru Aldundiko Ingurumeneko zuzendari nagusiak diona: Aralarko inguru naturalenean 4.390 mko luzera eta, gutxienez 3 mko zabalera izango duen pista bat irekitzeak ez omen dio eragingo inpaktu kaltegarri esanguratsu edo nabarmenik Natura 2000 Sareko naturagune horren osotasunari eta bertako intereseko habitat eta espezieei. Non dago baieztapen honen euskarri izan beharko lukeen txosten teknikoa? Nor engainatu nahi du(te)?

Eta Udalera bueltatuz: ahaztu zaigu, nonbait, 2012ko abenduaren 20ko Udalbatzan, Ordiziako Udalak Naturaren alde hartu zuen konpromisoa eta ordiziar orori zentzu berean eginiko eskaera; besteak beste, Aralarko kudeaketa plana burutu zedila eskatuz.

Bitartean, arauak betetzeari uko eginez, kudeaketa planik hasi ere egin gabe, Aralarko bide-azpiegituren plangintzarik gabe, honelako pista bat onartu omen da eta gainera, lanean hasi dira zati batean bada ere.

Egoera honen aurrean, Landarlan Ingurumen Elkarteak, Ordiziako Udaleko Osoko Bilkuran honako hau onartzea proposatzen du:

## **Proposamena**

**1. Enirio-Aralarko Mankomunitateak, edozein pista berri (hauek barne) onartu aurretik 2003an onartu zuen Ekintzen Egitamua berrikusi dezala, eman daitezken erabilerak naturaren babesaren menpean jarritz eta, onartzeko prozesuan, herritarren parte-hartzea eta eztabaidari bide emanaz. Bitartean, Goroskintxuko pistako lanak eta Saltarriko pista proiektua berehala bertan behera utz ditzala.**

**Ordiziako Udalaren erabaki hau Enirio-Aralarko Mankomunitateko herriei lehenbailehen jakinarazi eta erabaki honekin bat egiteko eskatzea, horretarako behar diren neurriak hartuz.**

**2. Hemendik aurrera, Enirio-Aralarko Mankomunitatean garrantzizkoak diren gaietan, batik bat urtero onartu beharreko plangintza, lanak eta aurrekontuak, Ordiziako Udalak hartu beharreko erabakiak dagokion Sailean landu eta Osoko Bilkuran onartu daitezela, Ordiziako Udaleko erabakia Mankomunitatera eraman aurretik.**

**3. Dagokion erakundeari eskatzea, Aralarko Erabilpen eta Kudeaketa Plana onar dezala, edozein plangintza aurrera eraman ahal izateko beharrezkoa.**

**4. Enirio-Aralar mendi publikoa izanik, mankomunitatea erakunde gardena eta irekia izatea, horretarako dokumentazio osoa web orri baten bidez herritarrei zabalduz, hartzen dituen erabakiak publiko eginez, informazioa zabalduz eta Enirio-Aralarren zainketan herritarrak parte hartzeko bideak ipiniz.**

**5. Aralarko Parke Naturala eta Kontserbazio Bereziko Eremuaren organo kudeatzaileak Aralar mendian edozein pista berri onartu aurretik mendiko bide-azpiegituren plangintza orokorra planteatu dezala eskatzea, gizartearen parte-hartze eta eztabaida prozesu zabal batera irekiz onartu aurretik.**

**6. Mankomunitateko lan batzordea desagitea, ez duelako aintzat hartzen Aralar Natur Parke eta Babes Bereziko Eremua dela, ezta gizartea informatu eta parte hartzeko bideak jartzea.**

**Foru Aldundiko Ingurumen eta Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendariei akordio hauen berri ematea eta aintzat hartzeko eskatzea.**

## Eztabaida

### EH-BILDU eta ORDIZIA ORAINeko ordezkariak

Adierazi dute beraiek mozioa babesten dutela baina benetan LANDARLANek aurkeztu duela.

Zuzenketa egin da.

### Huesa and. LANDARLANen izenean

Esan du pista eraikitzearen aurka daudela. Gogora ekarri du 2012an dagoeneko aurkeztu zutela Biodibertsitateari buruzko mozioa eta bertan Aralar sartzen zela eta Udaleko osoko bilkurak onartu zuela PNV eta EH-BILDUren aldeko botoekin eta PSOEn abstentzioarekin.

Honako hau eskatzen du:

- Aralarko edozein pistaren exekuzioa onartu aurretik edo mankomunitatearen beste edozein akordio garrantzitsu onartu aurretik Osoko bilkuraren akordio bidez onar dadila.
- Goroskintxuko pistaren obrak gera daitezela.
- Parke naturalaren plan integrala onar dadila.
- Mankomunitateak gardentasun printzipioak betetzeko orrialde bat sor dezala Mankomunitatearen prozesu eta akordioak islatzen dituen.
- Esan du behin baino gehiagotan administrazio espedientea eskatu dutela eta gaur egun arte ez zaiela eman. Eta dagoeneko obrak hasiak dira.
- Adierazi du akordioak artzain eta ganaduzaleekin hartzen direla baina ez direla mendizale, ekologista... eta beste sektore batzuekin hartzen. Soilik 120 ganaduzale daude mendietan eta mankomunitatea osatzen duten udalerrietan 137.000 biztanle daude.
- Horrekin batera Mankomunitateak sortutako lan-taldea desagertzea eskatzen du. Talde hau udalerrietako 4 ordezkari eta artzain eta ganaduzaleen 6 ordezkari osatzen dute.
- Geroz eta gehiago babestu mendiak geroz eta pista eta azpiegitura gehiago daude. Horrela hondatuko da Aralar.

### Ezenarro jna

Esan du bere taldeak mozioa babesten duela, ez hainbeste zer egiten den baizik eta nola egiten den, horretan oinarrituta. Sinestezina da une hauetan oraindik proiekturik eta espedienterik ikusi ez izana.

Alkate jaunari gogorarazi dio bere inbestiduran babestu zituen 3 oinarrien artean gardentasuna eta herritarren partaidetza irizpideak azaldu zirela.

Hasiera batean pistaren exekuzioarekin bat egiten zuten baina bere ustez bazeuden alternatiba hobek, besteak beste, Zaldibiatik egitea pista, gainera, udalerrri honek baimena eman zuen horretarako.

Enirio-Aralar Ekintza planean txabola batzuen kokaleku aldaketa onartzea aurreikusten da eta bere iritziz planak ere kontuan izan beharko du gai hau sarbideak planteatzean.

Berak ere uste du artzainen eta ganaduzaleen sektorea dagoela ordezkaturta eta ez gainerako herritarrak.

Parkearen plana egiteko eta onartzeko partaidetza prozesu bat egin behar litzatekeela uste du.

#### Sukia and.

Esan du bere taldeak ere mozioaren alde bozkatuko duela.

Ez dago gauzak azkar eta hausnarketarik gabe egitearen alde.

Alkate jaunari Enirio Aralarren aztertzen eta adosten diren gaiei buruzko informazioa eskatu dio, Udalez gairdiko beste erakunde batzuetan Ordizia ordezkaturten duten beste zinegotzi batzuek egiten duten moduan.

Bukatu du esanez ez dutela pistaren exekuzioari buruzko informaziorik eta eskatu du bestelako alternatiba guztiak azter ditzatela guztien interesak kontuan izanik, eta ez gutxi batzuen soilik.

#### Alkate jn

Esan du aurtengo otsailean pistaren obrei buruzko informazioa eman zutela eta gaia prentsan atera zela. Aurtengo inbertsioen artean pistaren obrak aurreikusten dira eta gainera Mankomunitatearen Batzordearen aktetan behin baino gehiagotan aipatzen dira obrak. Horrekin batera esan du, Mankomunitatearen ordezkari bezala berak boto bakarra duela eta Mankomunitatean bertan sortutako lan-taldea desagerraraztea ez dagokiola Udalari, Mankomunitateari baizik.

Talde politikoei galdetu die ea pistaren exekuzioarekin ados dauden ala ez, eta sarbideak planteatzen dituztenez ea pistaren aurka dauden.

#### Ezenarro jn

Esan du arazoa dela proiektua ez ezagutzea. Garrantzitsuena, azpimarratu du, ez da zer egiten den, baizik eta nola egiten den. Ez du proiektua ezagutzen ez dagoelako eskuragai eta adierazi du Mankomunitatearen egoitza Udala dela eta proiektuak hemen egon behar duela.

Goroskintxuko pistaren alde daude baina etorkizunean egin behar den edozein obra-exekuzio aldez aurreko plan bat onartuta egin beharko litzateke eta batez ere ondare publikoa izanda interes guztiak kontuan izanda egin beharko litzateke.

Seguraski guztiek eman beharko dute amore zerbaitetan baina ezin da horrela jokatu.

#### Alkate jn

Esan du 2003 urtetik aurreikusia dagoela pista ekintza planean eta 2014 urtean Mankomunitatearen aurreko lehendakariak pista burutzeko HAZI fundazioarekin lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuela. Gainera Batzordeak aho batez onartu du.

Bere ustez oposizioaren helburu bakarra da ez soilik pista hau ez burutzea baizik eta ez egitea pista gehiago. Mendietan dauden 120 ganaduzaleek Aralar mantentzen laguntzen dute gainerakoek gozatu dezagun.

Alkate jaunak esleipendun enpresak jasan dituen sabotajeen inguruko informazioa eman du. Esan du presazko izaerarekin egin zen Mankomunitatearen atzoko Batzordean, azaroaren bikoan, aho batez gaitzetsi zituztela sabotaje hauek.

#### Huesa and

Esan du sabotajeen aurka dagoela, bai horixe, ez delako bere estiloa baina Aralarren dagoen kontrol ezaren aurka ere badago. Obrak gerarazteko eskaera egin du.

#### Ezenarro jn

Adierazi du aho batez onartu izanak ez duela legitimatzen proiektua ez erakustea.

#### Sukia andrea

Esan du ez dela zuzena prentsa bidez obren exekuzioaren berri izatea eta pista exekutatu aurretik gaia sakonago aztertu behar zela.

#### Bozketa

Aldeko botoak: 7 (Ordizia EH-Bildu 5,Ordizia Orain 2)

Kontrako botoak: 5 (EAJ-PNV)

Abstentzioak: 1 (PSE-EE(PSOE))

**Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



**6.- GEHITUren eskaera, Ordiziako Udalak Parisko adierazpena onar dezan eta VIHren inguruan antolatutako kanpainan parte har dezan.**

## Proposamena

### **PARISKO DEKLARAZIOA**

2014ko abenduaren 1a

#### **HIRIETAKO EKINTZA AZKARRA: HIESAREN EPIDEMIARI AMAIERA JARTZEA**

2020rako 90-90-90 helburuetara iristen diren hiriak

Bere egoera serologiak pertonen %90ek ezagutuko dute.

Bere egoera serologikoa ezagutzen dutenen %90ak tratamendua jasoko du.

Tratamendua jasotzen duten pertonen %ak karga birala jaistea lortuko du.

#### **PARISKO DEKLARAZIOA**

Hiesari erantzun bat emateko momentu historiko batean aurkitzen gara. Garapen zientifiko, komunitate, aktibismo eta helburu komunaren bidezko konpromezu politiko bati esker Hiesaren epidemiari 2030erako amaiera jartzeko aukera errealak dugu. Hiriek denboraldi luzean daramate Hiesari erantzuna emateko lehen leerroan, baina momentu honetan kokapen ezin hobean daude 2020ean 90-90-90 helburua bete ahal izateko, hau da, GIBarekin bizi den %90ak bere egoera serologikoa ezagutu dezaten, bere egoera serologiko positiboa ezagutzen dutenen %90ak tratamendua jaso dezaten, eta tratamendua jasotzen dutenen %90ak beraien karga birala jaitsi dezaten.

GIBagatik infekzio berriak geldi ditzakegu eta horrekin batera hiesarekin loturiko heriotzak ekidin, tuberkulosiarekin lotuak daudenak barne. Estigma eta diskriminazioarekin amaitu dezakegu. Gure herritar guztiek izan behar dute GIB eta tuberkulosiarekin loturiko prebentzio tratamendu, harreta eta laguntza zerbitzu irisgarritasuna, biziak salba daitezten.

Parte-hartuz gero hiriek munduan oihartzuna izan dezaketenean udal neurriak har ditzakete. Gure irismena, azpiegitura eta giza gaitasuna aprobetxatuz hiriek denontzako etorkizun parekideagoa, inklusibo, aberatsagoa eta sostengarriagoa sor dezakete, sexuak, adinak, egoera ekonomiko edo soziala edo orientazio sexualak garrantzirik izan gabe.

#### **ALKATEOK ONDORENGO KONPROMEZUA HARTZEN DUGU:**

##### **1. Hiesaren epidemiari 2030urterako amaiera jartzea hirietan.**

GIBari zuzendutako 90-90-90 helburuetara iristea konprometitzen gara 2020. urterako, GIBaren infekzio kopurua eta Hiesarekin loturiko heriotzak gutxituz- baita tuberkulosiak eragindakoa ere- eta hiesarekin 2030ean amaitzeko prozesuaren bizkortzea bultzatuz. Detekzio, tratamendu eta prebentzio zerbitzuetarako irisgarritasun iraunkor bat eskaintzeko konpromezua hartzen dugu. Estigma eta diskriminazioarekin amaituko dugu.

## **2. Pertsonak egiten dugun guztiaren erdian kokatzea.**

Bereziki pertsona ahul eta baztertueta oinarrituko gara. Giza eskubideak errespetatuko ditugu eta ez dugu inor bazterrean utziko. Herri mailan eta beste komunitate batzuekin batera lan eginez jardungo dugu, gizarte erresistente, osasuntsu eta garapen sostengarri baten aldeko mundu mailako laguntza bultzatuz.

## **3. Arrisku, ahultasun eta transmisioen arazoak jorratzea**

Beharrezkoak diren baliabideak erabiliko ditugu, horien artean, udal ordenantza eta beste harramientak pertsonak GIB-aren eta beste gaixotasunen aurrean ahul egiten dituzten eragileak jorratuz.

Komunitate, zerbitzu, hornitzaileekin, lege betearazleekin eta beste erakundeekin, baita biztanleria baztertu eta ahulenekin, auzo marginalak, lekualdatutako pertsona, emakume gazteak, sexu langileak, droga xiringatzen duten pertsonak, atzerritarrak, gizonekin erlazio sexualak dituzten gizonak eta transexualekin lan egingo dugu, tolerantzia sortu eta bulatztatzearen.

## **4. Hiesari erantzuna, transformazio sozial positibo baterako erabiltzea.**

Gure lidergoak berrikuntza sozialean aldaketa bat ekarriko du, gizarte parekideago, barneratzaile, hartzailea, erresistente eta sostengarriak sortzearen. Osasun eta giza programak, zerbitzuen prestazioak hobetzearen integratuko ditugu, GIBarekin, tuberkulosi eta beste gaixotasun batzuekin loturikoak barne. Aurrerakutza zientifikoak, teknologikoa eta komunikazioa erabiliko ditugu helburu hau lortzeko.

## **5. Bertako beharrei egokitzen zaien erantzun bat sortu eta azkartzea.**

Berritzaileak, seguruak, irisgarriak, parekideak eta estigma eta diskriminaziotik at dauden zerbitzuak bultzatu eta garatuko dira. Parte-hartzea eta komunitatearen lidergoa bultzatu eta sustatuko da, eskaria handitzeko eta bertako beharrei erantzuten dien zerbitzuak ematearen.

## **6. Osasun publiko eta garapen integraturako errekutsoa mugitzea.**

Hiesaren erantzunean batera inbertitzea, osasun publikoarekin konpromezu tinko bat hartuz, gure hirietako etorkizunean inbertsio sendo bat da, emankortasuna, oparotasun elkarbanatuan eta ongizatean laguntzen duena. Gure hirietako errekutso eta egitasmoak egokituko ditugu erantzun bizkor bat eman ahal izateko. Mekanismo berritzaile bat garatu eta errekutsoak eta estrategia gehigarriak mugituko ditugu Hiesaren epidemiari 2030erako amaiera jar dizezaiogun.

## **7. Lider bezala bateratzea**



Ekintza plan bat burutzeko konpromezua hartzen dugu eta aitorpen hau errealitate hiri sare batean elkartezko konpromezua hartzen dugu, interesatu guztiekin kontsultan lan egingo dugu eta emaitza periodikoki aztertuko ditugu aldizka, gure erantzunak ahalik eta azkar, inteligente eta eraginkorren izan daitezzen. Beste hiri batzuei bultzatuko diegu eta funtzionatzen duenaren inguruan eta hobetu daitekeenaren gure bizipenak inguruko gure ezagutzak eta informazioa elkarbanatuko ditugu. Gure garapenei buruz urtero informatuko dugu.

### **Erantzun Azkarraren Helburuak**

<u>2020. urterako</u>	<u>2030. urterako</u>
90-90-90	95-95-95
Tratamentua	Tratamentua
500 000	200 000
Helduen arteko infekzio berriak	Helduen arteko infekzio berriak
ZERO	ZERO
Diskriminazioa	Dissriminazioa

### Eztabaida

#### Dubreuil jn

Proposamenaren xedea azaldu du. 2020 urterako 90-90-90 kopuruak lor daitezzen. Hau da:

- Birusak kaltetutakoen %90ek beraien egoeraren berri izan dezaten.
- Beraien egoeraren berri duten %90ek tratamendu bat jaso dezaten.
- %90ek beraien zama birala kentzea lor dezaten.

#### Maiza and

Galdetu du ea gaia azertu duen foroak konpromisoak hartzeak edo ezartzeak dakartzan baliabideei buruzko balorazioa egin duen.

#### Dubreuil jn

Erantzun dio esanez printzipioz asmoen adierazpen bat dela eta ondoren garatuko dela puntuaz puntu eta dauden baliabideen arabera.

### Bozketa

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak:0

**Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



## 7.- PSE-EE (PSOE)ren proposamena, Trans Despatologizazioaren aldeko Ekimenaren Nazioarteko Egunari buruzkoa.

### Proposamena

#### Oinarriak

Ordiziako Udalak mozio hau onartuz bat egin nahi du **Trans Despatologizazioaren aldeko Ekimenaren Nazioarteko Egunarekin**, eta beste behin ere transexualitatearen psikiatrizazioa eta "genero disforiaren diagnostikoa" deitukoaren ondorio larriak salatu nahi ditu. Bestalde, Ordiziako Udalak mozio honen bitartez bistaratu egin nahi du indarrean dauden mediku-prozeduren bitartez pertsona intersexualekin erabiltzen den indarkeria.

Transexualitatea gaixotasuna deneko ustea edo sinesmena behin betirako baztertu behar da, nazio mailan nahiz Osasunaren Mundu Erakundearen Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenean. Ezin da onartu inondik inora psikiatrizazioak erakunde mediku-psikiatrikoei bideratzea genero identitateei buruzko kontrola.

**Gogora ekarri nahi dugu** espainiar Estatuan alde handia dagoela transexualen eskubideetan autonomia mailan sustatutako legeen ondorioz. Andaluziak, Kanariar uharteek, Euskadik, Nafarroak edo Madrilgo Erkidegoak transexualen eskubideak aitortzen dituzten legeak dituzte, estatuaren gainerako lurraldeekiko alde handia dago eta ahalik eta azkarren konpondu behar da hori. Aurreko irailaren 28an FELGTBk aurkeztu zuen berdintasunaren aldeko eta LGTBI kolektiboa ez diskriminatzeko lege proposamenean eskubideen desparekotasunaren aurkako neurri eraginkorrak ezartzen dira.

Estigma hau Estatutik ezabatzeko, Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Espainiar Federazioak (FELGTB) 2007an onartutako Genero Identitatearen Legea hedatzeko eskaera egin du, bertan, gaur egungo araudia eguneratzeaz gain, transexualen identitate sexualaren "autodeterminazio gaitasuna" sendotuko duen "trans Lege integral" bat ere sartzeko.

Gaur egun, Espainian bost autonomia erkidegok –sei, Valentziako Gobernuak duela egun batzuk onartutako aurreproiektuaren legea berresten duenean- dute "trans Lege integral" bat: **Nafarroak, Euskadik, Andaluziak, Kanariar Uharteak eta Madrilek**. Hala ere, "estatu mailan transexualen eskubideak bermatu" behar dira.

Trans Despatologizazioaren Nazioarteko Sarearen adierazpenean ere, besteak beste, mediku ebaluaziorik edo ebaluazio psikologikorik pasa gabe dokumentu ofizialetan izena eta sexua aldatzeko eskubidea aldarrikatzen da eta horrekin batera lan arloan transexualen diskriminazioarekin eta bazterketarekin amaitzeko politika bereziak praktikan jartzea.

Bestalde, ezin dugu ahaztu “Transexualen Ezaugarri Soziodemografiko eta Doikuntza psikologikoa Espainian” azterketaren arabera, **transexualen %82ak bizitzan zehar eraso fisikoren bat jasan duela**. *Transfeminizidio*az ari gara. Transexualei egiten zaizkien eraso gehienak emakumeek jasaten dituzte, eta LGTB kolektiboaren barruan, emakumeen artean dago hilketa indize altuena. “Trans” emakumeek egin dituzten aldaketak gizonezkoenak baino askoz bortitzagoak izan dira. Zehazki, horietako sei emakumeetatik batek lan sexuala egiten du eta horrek ahulago egiten ditu eta ondorioz, hilketen biktima nagusi bihurtzen ditu.

Honengatik guztiagatik, talde sozialistak proposamen hau aurkeztu du, eta ORDIZIAKO UDALAK premiatzen du:

**1.- Espainiar Gobernu eta Parlamentuari transexualitatearen despatologizatorako neurri egokiak har ditzatela.**

**Era berean, Ordiziako Udalak Espainiako gobernu eta parlamentuari premiatzen die:**

- 2 TRATU BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO LEGE bat diseinatzea eta onartzea. Tratu berdintasuna eta diskriminazio eza bermatzen duen Legea edozein izanik arrazoa: jaiotza, arrazaren edo etniaren jatorria, sexua, erlijioa, iritzia edo ustea, adina, desgaitasuna, sexu orientazio edo identitatea, gaixotasuna, edo bestelako edozein egoera edo baldintza pertsonal edo soziala.**
- 3 GORROTO DELITUEN AURKAKO LEGE INTEGRALA diseinatu eta onartzea eta bertan prebentzio, sentsibilizazio eta zehapen neurriak sar daitezela eta era berean biktimentzako laguntza, salaketa eta arreta neurriak sar daitezela.**
- 4 TRANSEXUALEN LEGE INTEGRALA diseinatu eta onartzea, eta besteak beste, lege honek osasun publikoan transexualen arretan inongo patologiarik ez sartzeko protokolo berri bat ezar dezala.**
- 5 Indarrean dagoen GENERO IDENTITATEAREN LEGEA eguneratzea, tratamenduaren denborazkotasunaren baldintza eta disforiaren diagnostikoa kenduz eta legean adingabeak sartuz eta atzerriko transexualen egoiliar-txartelean izena eta sexua egokitzeko aukera emanez.**
- 6 LESBIANA, GAY, TRANSEXUAL, BISEXUAL ETA INTERSEXUALEN BENETAKO BERDINTASUNERAKO LEGE bat diseinatu eta onartzea.**

Eztabaida

Dubreuil jn

Azaldu du gaur egun oraindik pertsona hauek gaixotzat hartzen direla eta Espainiako gobernuari eskatzen zaio pertsona hauek diskriminatzen ez dituen lege bat onartzeko eta edozein arrazorengatik diskriminatuak diren pertsona guztien aurkako gorroto delituen kontrako neurriak hartzeko. Mozioaren 6 puntuak irakurri ditu.

Sukia and

Uste du lege asko onartzeko eskaera egiten dela eta agian neurri prebentiboak landu eta onartu behar liratekeela.

Bozketa

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak:0

**Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



**8.- PSE-PSOEren mozioa, Euskadiko Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa egiteko derrigortasunaz.**

Proposamena

**Oinarriak:**

2014ko maiatzaren 16an talde sozialistak osoko bilkuran aztertzeke mozio bat aurkeztu zuen Euskadin Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa egiteko beharra dela-eta (erantsita).

Zehaztutako mozio honen bidez, osoko bilkurak udal gobernuari honako hau eskatzen zion:

1.- Lan-talde bat eratzea, antzinatasunaren arabera eraikinen banaketa kontuan izanik, aldi baterako plangintza egingo duena eta horrekin araudi proposamenetara gehien egokitzen diren urteroko ikuskapenak martxan jarri daitezela eta informazio eta arretarako programaren dagokion jarraipena antolatu eta martxan jarri dezala.

2.- INFORMAZIO ETA ARRETA BULEGO bat martxan jartzea, honetarako:

- a) Ondorengoaren informazioa emateko: atal honetan indarrean dauden edukiak eta betebeharrak (241/2012 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen tekniko arautzen duena, 8/2013 Legea, ekainaren 26koa, birgaitzeari eta hiri- berronetzeari eta berrikuntzari buruzkoa, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa arautzen duen 2012ko azaroaren 21eko 241/2012 Dekretuaren II. eta III. Eranskinak aldatzen dituen Enplegu eta Gizarte Politiken Kontseilariaren 2013ko urriaren 15eko Agindua, etxebizitzaren alokairuaren sustapena, eraikinen birgaikuntza eta hiriaren biziberritze eta berriztapenaren Estatuko Plana 2013-

2016 arautzen duen apirilaren 5eko 233/2013 Errege Dekretua eta gau honekin lotuta dagoen gainerako araudia).

- b) Araudiak ezartzen dituen txostenak egin ditzaketen eta homologatuta dauden enpresa eta profesionalen (ahal bada udalerrikoak) zerrendak emateko.
- c) Betekizunen gastua finantzatzeko dauden diru-laguntzei buruzko informazioa emateko.

Eta horrekin batera eskatzen zen:

3.- Araudi honetatik eratorritako betebeharren gastuei aurre egin ahal izateko laguntzak eman ahal izateko udal-dirulaguntzen programa bat ezartzea, beste erakunde batzuekin bateragarriak direnak.

Zehaztutako mozioa maiatzaren 26ko osoko bilkuran aztertu zen eta orduan Udalbatza osatzen zuten alderdi politiko guztiek aho batez onartu zuten (erantsita eztabaida eta osoko bilkuraren akordioa).

Beste alde batetik, osoko bilkura horretan bertan, orduko Alkate zen Igor Eguren jaunak jakinarazi zuen pertsona bat kontratatu zela "etxebizitzaren errolda bat egiteko eraikuntza urteko" eta bere alderdi politikoak ez zuela eragozpenik izaera teknikoko eta politikoko lan-talde bat eratzeko, eta diru-laguntzen gaiaren inguruan azaldu zuen diru-laguntzen lerroa zabalduko balitz sakonki aztertu behar litzatekeela.

Santamaria jaunak ere, gaur egungo alkateak, orduan oposizioko zinegotzia zenak, orduko Alkateak esandakoarekin bat egin zuen, eta adierazi zuen legezkoa iruditzen zitzaiola politikariek eta teknikariek osatutako talde bat sortzea gaia aztertzeke eta talde hori osatzean diru-laguntzen gaia aztertzeke.

Egun gutxi beranduago, 2014ko maiatzaren 30ean EIT arautzen zuen araudia aldatu zen eta besteak beste, egutegi berri bat hartu zen eta azaroaren 21eko 241/2012 Dekretuan ezarritako programazioa aldatu zen. Era horretara, ukitutakoen zenbait eskaerei erantzuna eman nahi izan zitzaien eta 2017ko ekainaren 27a baino lehen 50 urte betetzen zituzten eraikinei epea luzatu zitzaien. Horrekin batera akatsen konponketaren ziurtagiria aurkezteko era ere arautu zen.

Gainera, EITa egiteko eta EITren eraginkortasunerako prozedura araudian oinarrituta betetzeko, Udalean aurkeztu beharreko agirien formatoari buruzko alderdi teknikoa, fitxak eta Dekretuaren eranskinak zehazten diren. Beste alde batetik, bertan ezartzen zen, energia eraginkortasuna, irisgarritasun unibertsala edo kontserbazio obrak egiteko helburuarekin diru-laguntzak eskatu nahi zituzten titularren eraikinetan EITa egiteko betebeharra zegoela, higiezinaren antzintasuna alde batera utzita.

2016 urtea amaitu denean, guztiak ados izanik, lan-taldea ez da eratu oraindik eta beharrezkoa zen ikerketa eta zegoekin eztabaida ez da burutu. 2016 urtearen bukaeran gaude eta Udalak ez du plangintzarik egin horri buruz. Ez ditugu kontuan izan ordiziarrek nahitaezko lanak egiteko izan ditzaketen finantzaketa-arazoak. Ez ditugu diru-laguntzen programak aztertu eta abar.

**HORREGATIK GUZTIAGATIK** talde sozialistak osoko bilkuran onartzeko ondorengo proposatzen du:

**1.- Lan-talde bat eratzea, antzinasunaren arabera eraikinen banaketa kontuan izanik,**

- **Aldi baterako plangintza egingo duena eta horrekin araudi proposamenetara gehien egokitzen diren urteroko ikuskapenak martxan jarri daitezela**
- **INFORMAZIO ETA ARRETA BULEGO bat martxan jartzea, honetarako:**
  - **Ordiziarrei indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen eduki eta betebeharrei buruzko informazioa emateko.**
  - **Araudiak ezartzen dituen txostenak egin ditzaketen eta homologatuta dauden enpresa eta profesionalen (ahal bada udalerrikoak) zerrendak emateko.**
  - **Betekizunen gastua finantzatzeko dauden diru-laguntzei buruzko informazioa emateko.**
- **Araudi honetatik eratorritako betebeharren gastuei aurre egin ahal izateko laguntzak eman ahal izateko udal diru-laguntzen programa bat ezartzea, beste erakunde batzuekin bateragarriak direnak.**

#### Eztabaida

##### Dubreuil jn

2014ko maiatzean osoko bilkurak lan-talde bat sortzea onartu zuen gaia garatzen hasteko. Egia da epeak luzatzen dituzten arauak onartu dituztela ondoren baina epe berriak ere iristen dira eta epe barruan horri aurre egin ezinik egongo diren pertsonak eta familiak egongo dira ikuskaritzek dituzten gastuengatik eta ezin izango diote neurriari aurre egin.

Lan-talde hori martxan jartzea proposatzen du informazioa eman eta laguntzeko eta behar duten pertsonen diru-laguntzak emateko.

##### Ezenarro jn

Ez daki oso ondo zein den lan-talde horren helburua. Eusko Jaurlaritzak sarbide publikoko erregistro bat sortu du eta edozein pertsona sar daiteke bere eraikinaren inguruko datuak eta informazioa eskuratzeko.

Ez dio zentzu handiegirik ikusten lan-taldeari. Informazioa eman, besterik ezin da egin.

##### Alkate jn

Esan dio Obra eta Hirigintza Sailean egunean jartzen ari direla eta horri buruzko informazioa biltzen ari direla.

Laguntzei dagokienez garrantzitsua da horretarako aterako diren diru-laguntzen erroak ezagutzea eta Obren saila horretan lan egiten ari da.

#### Ezenarro jn

Uste du dagokion finantziazioa esleitu gabe lan batzuk eskuordetu dizkigutela.

#### Sukia and

Uste du Eusko Jaurlaritzaren eskumena izan arren eta Udalarena ez den arren herritarren arazoa dela eta herritarrei lagundu behar litzaiekeela.

#### Dubreuil jn

Adierazi du osoko bilkurak 2014ko maiatzean hartutako akordioarekin gauzak argi zeudela. Bere ustez 2014 urtean baino zentzu handiagoa du herritarrei informazioa ematea eta beste erakunde batzuekin bateragarriak diren diru-laguntzak ematea.

#### Ezenarro jn

Adierazi du ez dagoela herritarrei laguntzearen eta informazioa ematearen aurka baina bere ustez ez genieke gure eskumenekoak ez diren gastuei aurre egin behar nahiz eta aurrekontuetan aztertzeko prest izan.

#### Bozketa

Aldeko botoak: 8 (Ordizia Orain 2, PSE-EE(PSOE)1, EAJ/PNV 1)

Abstentzioak: 5 (Ordizia EH – Bildu 5).

**Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



#### **10.- Eskaerak eta galderak.**

- Sukia Andreak atzo Donostian elkarbizitzari buruzko jardunaldian izan zela esan du eta bere egunean Udalak BIZIKIDETZA programa martxan jartzeko partida onartu zuela gogorazi du.

- Juan Miguel Goiburu jaunak desgaitasuna duten langileentzako Udalak gordetzen duen lanpostuen ehuneko zazpiaz galdetu du.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.